



DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, LANTEGI ESKOLAKO MONITORE LANPOSTUAN SOLDADURA ESPEZIALITATEAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA.

Iruñeko Udalak, Giza Baliabideetako Zuzendaritzak 2021ko maiatzaren 26an emandako Ebazpenaren bidez, honako deialdi hau onetsi du:

OINARRIAK

Lehena.- Deialdia iragartzen da izangai-zerrenda bat hautaprobek bitartez osatzeko, LANTEGI ESKOLAKO MONITORE LANPOSTUAN SOLDADURA ESPEZIALITATEAN aritze aldera, Iruñeko Udalan aldi baterako gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Halaber, espainiarren ezkontideek parte har dezakete, eta Europar Batasuneko beste estatu bateko herritarrenek zein aipatutako nazioarteko itunen esparruko beste estatu bateko herritarrenek ere –betiere zuzenbidez bereizita ez badaude–; bai eta, orobat, haien ondorengoek eta ezkontideenek ere –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

- b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- c) Bi baldintza hauetako bat betetzea:
 - 1. Fabrikazio Mekanikoaren lanbide-arloko Goi-mailako teknikariaren titulua edo Fabrikazio Mekanikoaren lanbide-arloko Eraikuntza metalikoen lanbide-eremuko 3. mailako Profesionaltasun-ziurtagiria izatea, eta 2 urteko lan-esperientzia egiaztatzea elektrodo estaliekini soldatzeko prozesuetan (MIG, MAG eta TIG).
 - 2. Batxilergoko titulua, goi-mailako Lanbide Heziketakoa edo horien baliokidetzat jotako titulua edukitzea, eta 4 urteko lan-esperientzia egiaztatzea elektrodo estaliekini soldatzeko prozesuetan (MIG, MAG eta TIG).
- d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.



- e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizita ere.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

2.2. Deialdi honi dagokion Lantegi Eskolako Soldadura espezialitateko monitore lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuak betetzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

2.3. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 2.1. c) letran eta 2.2 zenbakian eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.4. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena.- Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izanen da, deialdia iragartzen duen aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Deialdiaren testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es webgunean eta Herritarrendako Arreta Bulegoan.

3.2. Deialdian parte hartzeko eskabideak Iruñeko Udalaren edozein Erregistrotan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

Eskabideak I. eranskinean jasotako ereduari lotuko zaizkio. Eredu hori eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta bulegoetan eta Interneten, www.pamplona.es helbidean.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, betiere ezertan galarazi gabe kontratatuak izateko deituak direnean jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak aurkezteko beharra:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, deialdiaren 2.1. a) oinarrian eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.
- 2.1.C) oinarriaren 1. zenbakian adierazitakoa egiaztatzeko:
 - o Fabrikazio Mekanikoaren lanbide-arloko (Lanbide Heziketa) goi-mailako teknikariaren tituluaren fotokopia edo Fabrikazio Mekanikoaren lanbide-arlo bereko



Eraikuntza metalikoak lanbide-eremuko 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriaren fotokopia.

- Eskatzen den 2 lan-urteko esperientziaren ziurtagiria.
 - Soldatapekoak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatuta dauden mutualitatearen ziurtagiria, enpresa, lan-kategoria (kotizazio taldea) eta kontratazio-aldia jasotzen dituen, bai eta lan-esperientzia non eduki eta enpresa horren ziurtagiria ere, bertan jasota kontratuko aldien iraupena, egindako jarduera eta jarduera hori egin den denbora-tartea.
 - Norberaren konturako langileak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, dagokion araubide berezian Gizarte Segurantzaren alta emandako aldiei buruzkoa, eta erantzukizunpeko adierazpen bat eskatutako lan-esperientziaren betekizunak betetzearen gainean.
- 2.1.C) oinarriaren 2. zenbakian adierazitakoa egiaztatzeko:
 - Batxilergo-tituluaren, goi-mailako teknikariaren edo goi-mailako Lanbide Heziketaren tituluaren fotokopia.
 - Eskatzen den 4 lan-urteko esperientziaren ziurtagiria.
 - Soldatapekoak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatuta dauden mutualitatearen ziurtagiria, enpresa, lan-kategoria (kotizazio taldea) eta kontratazio-aldia jasotzen dituen, bai eta lan-esperientzia non eduki eta enpresa horren ziurtagiria ere, bertan jasota kontratuko aldien iraupena, egindako jarduera eta jarduera hori egin den denbora-tartea.
 - Norberaren konturako langileak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, dagokion araubide berezian Gizarte Segurantzaren alta emandako aldiei buruzkoa, eta erantzukizunpeko adierazpen bat eskatutako lan-esperientziaren betekizunak betetzearen gainean.
- Euskarazko hizkuntza-eskakizuna duten lanposturik izanez gero, horiek eskuratu nahi dituztenek euskarazko gaitasun-agiriaren (EGA) fotokopia edo baliokidea aurkeztuko dute.
- Ziurtagiria, izena emateko eskubide tasa dela-eta 7,50 euro Iruñeko Udalarari ordaindu izana egiaztatzeko. Tasa hori ordaindu ezean, izangaia bazterturik geldituko da.

Tasa Iruñeko Udalak honako finantza-entitate hauetan dituen kontuetan ordaindu daiteke, haietan dirua sartuz edo haietara banku-transferentzia eginez: Caixabank (ES04 2100 2173 8102 0022 2762), Laboral Kutxa (ES22 3035 0039 3403 9090 0005) eta Nafarroako Rural Kutxa (ES07 3008 0001 1411 0344 7429); edo, bestela, Udaleko Diruzaintzan (Merkatuko kalea 7-9, 2. solairua). Ordainagirian honako datu hauek adierazi beharko dira, nahitaez:

- Izangaiaren izen-abizenak.
- NAN / IFZ.



- Ordainketa zein kontutan egin den eta horren zenbakia.
- Kontzeptua: Soldadurako Lantegi Eskolako Monitore deialdia.

- Deialdi honen 5.2. oinarrian adierazitako merezimenduen egiaztagiriak, halakorik balitz.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arte haiek gauzatutako egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, eskabidean egindako faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

3.3. Eskabidearekin batera, desgaitasun bat aitortua duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudun batek emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten, eta eskatutako egokitzapenak.

Laugarrena.- Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta zerrenda jendaurrean ikusgai paratuko da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es webgunean eta Udalaren iragarki-taulan, Udaletxean bertan, zerrendan izangaien izena, abizenak eta NANA adierazita.

Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egindako akatsak zuzentzeko, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda (izena, abizenak eta NANA agertuko dira, eta, baztertuen kasuan, bazterketaren zergatia), eta agindua emanen du hori argitaratzeko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan, deialdi honetan aurreikusitako lehen hautapropa egiteko eguna eta tokia zehaztearekin batera.

Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da (izena, abizenak eta NANA adierazita) eta Iruñeko Udalaren webgunean nahiz iragarki-taulan argitaratuko da, hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte.

Bosgarrena.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

5. Prozesuaren garapena.

Hautaketa-prozesua bi fasetan egingen da: lehenik, proben fasea, eta ondoren merezimenduak baloratzeko fasea, oinarri hauetan adierazitako moduan.



5.1. Hautaprobak: Hautapena jarraian deskribatzen diren proben bidez egingen da, eta haien gehieneko puntuazioa 70 puntu izanen da.

5.1.1. Lehen proba. Proba teorikoa: izangaiek test erako galderak dituen galdetegi bat idatziz erantzun beharko dute –Epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran–. Galderak Deialdi honen II. eranskineko gai-zerrendan agertzen diren gai buruzkoak izanen dira; galdera bakoitzari erantzuteko aukera batzuk egonen dira, eta horietako bat bakarrik izanen da baliozkoa.

Proba honek gehienez ere 30 puntuko kalifikazioa izanen du. Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortu akatsak erantzunetan hainbat aukera dituzten galderetan. Proba gaitutako dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (15 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek.

5.1.2. Bigarren proba. Proba praktikoa: Izangaiek soldatzaile-lanari eta/edo gaiaren irakaskuntzari lotutako suposizio praktikoa bat edo batzuk egingen dituzte.

Proba honetan gehienez ere 40 puntuko balorazioa emanen da. Probaren balorazio-irizpideak hura hasi aurretik zehaztuko dira. Proba praktikoa gaitutako dute guztira ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (20 puntu) gutxienez lortzen duten izangaiek.

5.2. Merezimenduen balorazioa: ez da baztergarria izanen, eta gehieneko puntuazioa 30 puntu izanen da, honako baremo honekin bat:

5.2.1. Irakaskuntza-esperientzia (gehienez 15 puntu):

Espezialitate honetan jardun profesionalean egiaztatutako irakasle-esperientzia izateagatik, Enplegu-Prestakuntzako Programa Mistoetan, Lantegi Eskoletan, Enplegu Lantegietan, edo Prestakuntza Ikastaroetan, edo Lanerako Lanbide Heziketan. 1 puntu emandako 40 ordu bakoitzeko, gehienez ere 15 puntura bitarte.

5.2.2. Irakaskuntza-gaitasuna (15 puntu)

Honako titulu hauetako bat edukitzeagatik, 15 puntu:

- Lanerako prestatzailearen profesionaltasun-ziurtagiria edo horren prestakuntza baliokidea helduentzako lanbide-heziketako metodologia didaktikoan.

Gradua edo Lizentzia Pedagogian, Psikopedagogian edo Psikologian, edo Maisu-maistraren titulazioa edozein espezialitatetan.

- Aurreko atalean aipatutako unibertsitate-titulazioez bestekoak eta, gainera, hauetakoren bat:

- Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria.
- Espezializazio Didaktikoko titulu profesionalak eta Kualifikazio Didaktikoko ziurtagiria.
- Unibertsitate-masterra, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasle aritzeko gaitzen duena.



- Eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren prestakuntza-ikastaro baliokidea, irakaskuntza-ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio bat izanik master-ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzat.

Aurreko ataletan alegatu eta frogaturiko merezimenduak goian jasotako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak. Merezimenduak agiri bidez alegatu eta frogatu beharko dira lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta atal bakoitzerako aipatzen den gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu izangaiak alegatutako merezimenduen gainean.

Epaimahaiak zehaztuko du proba honetako ariketak egun bakarrean edo desberdinetan eginen diren, baita horien iraupena ere, ezarritako edukien arabera.

5.3. Proba bakoitzerako deialdi bakarra eginen da, eta izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, AIZ edo pasaportearen aldean dutela azalduko dira haietara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geratuko dira.

5.4. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoaren aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

5.5. Proba bakoitza egin ondoren, izangai bakoitzaren emaitzak argitaratuko dira Udalaren webgunean eta iragarki-taulan, izangaien izena, abizenak, NANA eta puntuazioa adierazita.

Proba bakoitzaren emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta. Behin erreklamazioak ebatzita, eta hala badagokio, egin beharreko hurrengo probaren eguna eta tokia adieraziko dira.

Seigarrena.-Kalifikazio-epaimahaia.

6.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Iñaki Amigot Redín, Iruñeko Udalaren Aranzadi Prestakuntzako Lantegi Eskolako zuzendaria.

Epaimahaiburu ordezkoa: Ricardo Elizalde Abrego, Iruñeko Udalaren Gizarte Zerbitzuetako Enplegu-programetako arduraduna.

Epaimahaikidea: Samira Ounini Moumen, Iruñeko Udalaren Aranzadi Prestakuntzako Zentroko gizarte-langilea.

Epaimahaikide ordezkoa: Eva Bert Landa, Iruñeko Udalaren Aranzadi Prestakuntzako Zentroko gizarte-langilea.



Epaimahaikidea: Carlos Pastor Sola, Iruñeko Udalaren Aranzadi Lantegi Eskolako Soldadura-monitoreo.

Epaimahaikide ordezkoa: Salvador Domench Casado, Iruñeko Udalaren Aranzadi Lantegi Eskolako monitoreo.

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikari bat.

Epaimahaikide-idazkari ordezkoa: Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikari bat.

6.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Zerbitzu Orokor-Giza Baliabideetako Alorreko Giza Baliabideetako zuzendaritzari jakinarazi hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzera, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

Epaimahaiaren osaera aldatzen bada, epaimahaikideek parte ez hartzeko edota haien errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean emanen da horren berri izangai onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera.

6.3. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengoa bildu gabe.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdien oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probetarako. Aholkulari horiek haien espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Zazpigarrena.- Gainditu dutenen zerrenda, izangai-zerrenda eta deiak.

7.1. Behin proben kalifikazioa bukatuta, Epaimahaiak Iruñeko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko du gainditu dutenen zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran (izena, abizenak, NANA eta lortutako puntuazioa agertuko dira), eta Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dio, zerrenda onetsi dezan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

Izangaiek lortu duten puntuazioetan gerta litezkeen berdinketak Kalifikazio-epaimahaiak ebatziko ditu, hautapen-prozesuaren bigarren proban, hau da, proba praktikoan lortutako puntuaziorik



altuenaren arabera, eta berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehen proban lortutako puntuaziorik altuenaren arabera. Eta bere horretan segituz gero, zozketa bidez ebatziko da Zerbitzu Orokor-Giza Baliabideetako Alorrean, berdinduta dauden izangaiei deituko zaielarik zozketan egon daitezten.

Izangai zerrendak haiei deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, osasun-azterketa bat eginen zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

7.2. Behin hautapen-prozesuaren espediente osoa jasota, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko du izangaien zerrenda, izangaiak deitzeko hurrenkerari lotuta (izena, abizenak, NANA eta lortutako puntuazioa agertuko dira), eta argitara emanen da Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.pamplona.es).

7.3. Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

Zortzigarrena.-Errekurtsoak.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organuari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazpena egiteko.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 26an – GizaBaliabeetako zuzendaria, Javier Morrás Iturmendi.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA, LANTEGI ESKOLAKO MONITORE LANPOSTUAN SOLDADURA ESPEZIALITATEAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ		JAIOTEGUNA
NAZIONALITATEA		EGUNGO HELBIDEA
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

Desgaitasunaren egiaztapena. (hala badagokio, soilik).

Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.

Nire desgaitasuna dela-eta, eransten dudan egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik. (beste orri batean).

ADIERAZPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina espediente bidez bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobei bidez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian, LANTEGI ESKOLAKO MONITORE LANPOSTUAN SOLDADURA ESPEZIALITATEAN aldi baterako kontratu bidez aritzeko. Deialdiaren iragarkia 2021eko _____. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____ (e)koan.

DATUEN BABESA. Iruñeko Udala da arduradun botere publikoak gauzatuz egiten diren lan-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduz.

Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko behar den bitartean kontserbatuko dira, eta biltegiturako dira Udalarri haien erabileratik etor dakioken erantzukizunik eduki bitartean. Halaber, bete behar dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako kontserbazio-arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betetz, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: Jakinarazten dizugu eskubidea duzula datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz (www.pamplona.es). Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziari zuzenduta (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril), idazki bat aurkeztuz edo egoitza elektronikoaren bidez, www.agpd.es webgunean.

Iruñean, 2021ekoaren(e)(a)n
(Sinadura)



II. ERANSKINA

GAITEGIA

1. gaia.- Planoen interpretazioa soldaduran.
2. gaia.- Ertzak ebaki eta prestatzeko prozesuak.
3. gaia.- Soldadura errutilozko elektrodoak dituzten karbono-altzairuzko xaflez eta profilez estalitako elektrodoez.
4. gaia.- Soldadura oinarrizko elektrodoak dituzten karbono-altzairuzko xaflez eta profilez estalitako elektrodoez.
5. gaia.- Soldadura karbono-altzairuzko egitura herdoilgaitzez eta beste zenbait materialez estalitako elektrodoez.
6. gaia.- Karbono-altzairuzko TIG soldadura.
7. gaia.- Altzairu herdoilgaitzezko TIG soldadura.
8. gaia.- Aluminioz eta aleaziozko TIG soldadura.
9. gaia.- Enplegu-prestakuntzako ekintzen programazio didaktikoa.
- Tema 10.- Material, bitarteko eta baliabide didaktikoen hautaketa, elaborazioa, egokitzapena eta erabilera, enplegurako lanbide-prestakuntzan.
11. gaia.- Enplegurako prestakuntza-ekintzak ematea.
12. gaia.- Enplegurako prestakuntza-ekintzen tutoretza.
13. gaia.- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa, enplegurako lanbide-prestakuntzan.
- Tema 14.- Lan-orientazioa eta kalitatearen sustapena enplegurako lanbide-prestakuntzan.